



Haur Hezkuntza

3. Modulua: Komunikazio Gaitasunak DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

Aurkibidea

1. DALAREN AURKEZPENA3

1.1. Dalaren aurkezpena.3

1.2. Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI).3

2. ARAUTEGIA ETA SALBUESTEA4

3. GAITASUNAK ETA EBALUAZIO EMAITZAK6

3.1. Modulu guztien DALaren gaitasun komuna.6

3.2. Moduluaren ikaste emaitzak.7

4. DALAREN GARAPENA8

4.1. Arazoaren deskribapena.8

4.2. Faseak eta ematekoak.9

4.3. Kronograma.11

4.4. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak.11

4.5. Ematekoen inguruko oinarrizko alderdiak.12

5. DALAREN EBALUAZIOA.13

5.1. Lan modularraren ematekoak eta ebaluatzeko irizpideak.14

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK15

ERANSKINAK16

1. Eranskina: Ematekoak egiteko gida laburra.16

2. Eranskina: Aktak jasotzeko txantiloia.19

3. Eranskina: Taldearen autoebaluazioa egiteko txantiloia.20

1. DALaren aurkezpena

1. 1. Dalaren aurkezpena.

Egungo jendartean eta eskolan gertatzen ari diren aldaketak (dela irakaskuntza digitalaren baliabideak, dela irakasteko metodo eta konpetentzien definizio berriak, dela euskararen ofizialtasunari, dela hizkuntzen eta kulturen aniztasuna) irakasleen lanbideak prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatuko die ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturean integratua eta "ikasten ikasi" konpetentzian oinarrituta, ikasketa-prozesu aberasgarri gisa ulertuta eta arreta ikasleengan jarrita.

Idea hori abiapuntutzat hartuta, Bilboko Hezkuntza Fakultateak beste prestakuntza-egitura bat hautatu du; diziplina elkarketaren, ordez, diziplinartekotasuna sustatzea eta banakako lanen, ordez, elkarlana proposatzea. Horregatik aukeratu dugu modulu-egitura eta metodologia aktiboen sistema, eskolako/hezkuntzako benetako egoeren edo arazoen berri izateko eta horien konponbideez hausnartzeko.

Haur Hezkuntzako 2. mailaren hasieran egiten da hirugarren modulu hau, eta komunikazio gaitasunak garatzeari buruzko lau irakasgaik osatzen dute.:

- **Hurtzaroaren Psikologia**
- **Informazio eta Komunikazio Teknologia Haur Hezkuntzan**
- **Komunikazio Gaitasunaren Garapena. Gaztelania eta Euskara Haur Hezkuntzan II**
- **Ikastetxearen Antolakuntza**

Gaitasun komunikatiboak oinarritzat jotzen dira edozein irakaslerentzat, baina bereziki garrantzitsuak dira hurtzaroan (ezaugarri bereziak ere baditu), aldi horretan arlo afektiboa oso presente dagoelako eta gerora eragin handia izan dezakeelako ikasleen garapen pertsonalean eta akademikoan.

1.2. Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI).

Metodologia didaktiko honek ezagutzaren ikuspegi globala hartzen du abiapuntu eta pentsamenduaren prozesu osoa biltzen du bere baitan.

Gainontzeko metodologia aktiboetan bezala, arazoetan oinarrituriko ikaskuntzaren oinarria ezaguna da; izan ere, kontzeptuak ondorio behagarrien bidez ulertzen dira eta, hortaz, ikasteak gauzekin kontaktu zuzena izatea eskatzen du.

Ikasleak arazo jakin batzuetan jarri eta ikasitako kontzeptuak gogoratu, berrulertu eta berrerabiltzea du helburu, eta kontzeptu horien bidez ikasleek arazoak konpondu edo bizi diren komunitatea hobetzeko proposamenak egitea du helburu.

Arazoetan oinarrituriko metodologia aktiboan hainbat fase daude: i) jarraitu beharreko urratsak planteatu, ii) arazoaren ebazpena planifikatu, iii) lan-taldean ardurak banatu, iv) teoria aplikatu, v) planteatutako arazoaren konponbidea proposatu, vi) ebazpen bat garatu, vii) bestelako ebazpenen bideragarritasuna aztertu, viii) garapen aukerarik egokiena aukeratu eta ix) arazoaren ebazpenean hartutako erabakiak justifikatu.

Uste da Arazoetan Oinarrituriko metodoak beste ikasteko eredu batzuek baino ikasketa esperientzia aberasgarriagoa eta benetakoagoa eman diezaiekeela ikasleei; izan ere, arazoetan oinarrituriko ebazpena gauzatzeko, elkarlana eta lankidetzak funtsezkoak diren testuinguru sozialean gertatu behar da ikaskuntza hori. Testuinguru horrek pertsonen arteko gatazkei aurrea hartzeko eta konpontzeko bidea ematen die ikasleei. Lankidetzak giro horretan, ikasleek konfiantza har dezakete norbere kompetentziak garatzeko eta eskolako nahiz bizitzako arazoak konpontzeko oinarriak eman diezazkiekete.

2. Arautegia eta salbustea

Ikasle guztiek egin behar dute DALa. Lan horretan lortutako notak 3. moduluko irakasgai guztien azken notaren % 16 hartuko du.

DALean lortutako nota ikasturte bakoitzaren ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da soilik.

Titulazioa modularra denez gero eta lanak diziplina arteko edukia duenez gero, ikasleak jarraikako ebaluazio sistema ezin badu egin justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, % 33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio moduluko koordinatzaileari edo titulaziokoari, eta moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) hitz egin beharko du azaroaren 5a baino lehen.

Koordinatzaileak behar den informazioa emango dio, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko eguna eta tokia. (EHUko ebaluaziorako arautegia, 8. artikulua, 3. puntua).

Egoera horretan dagoen ikasleak ez du tutorerik izango eta ikasleak dagokion arloko irakasleengana jo beharko du, zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, % 16a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekainazuztaila), baina ez hurrengo ikasturterako.

Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari den eta moduluko irakasgai batzuk (baina ez guztiak) matrikulatuta dituen ikasleak ez du modulu lanik egin beharko.

2. Graduako ikasleak DALa egin beharko du, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan edo gehiagotan matrikulatuta badago. Gainerako kasuetan, ikasleak ez du DALa egin beharrik izango.

3. DALa egin behar ez duenaren kasuan, irakasgaien nota 10etikoa izango da, beraz, DALari dagokiona ez da kontuan hartuko.

4. Aldi berean bi modulu egin behar duen ikasleak (irakasgai batzuk baliozkotu gabe edo gainditu gabe dituelako) matrikulatutako irakasgai gehien duen moduluko DALa baino ez du egin beharko. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera balitz, DALa gorago dagoen mailako moduluan egin beharko du.

Aipatutako edozein kasuetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

3. Gaitasunak eta ebaluazio emaitzak

3.1. Modulu guztien DALaren gaitasun komuna.

GAITASUNAK	EMATEKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Informazio eta komunikazio baliabideak (IKTak, bibliotekak, fonotekak, besteak beste) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.	Txosten idatzia	Informazio iturriak erabiltzea eta erreferentzia bilbaiografikoak sartzea. Norberaren eraikuntza, ez plagioa. Txosten idatzian erabilitako erreferentzia-iturriak zuzen sartzea (APA arauak).
	Ahozko Aurkezpena	hozko aurkezpena modu formalean egitea edota diskurtso-egitura nabarmentzen jakitea
Ahoz eta idatziz zuzen eta egokitasunez egitea, adierazpide oparoak erabiliz	Txosten idatzia	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Adierazten diren zati guztiak txosten idatzian sartzea.
	Ahozko aurkezpena	Zuzentasun linguistikoa. Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Jariotasuna eta argitasuna azaltzean.
Estrategia didaktikoak diseinatzea komunikazioa aberasteko (ahozkoak, idatziak, ikusizkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integralerako	Txosten idatzia	Azken aurkezpenaren eta txosten idatziaren arteko koherentzia. Lengoia adierazgarriak erabiltzea (musika, plastika eta gorpuzkerak).
	Ahozko aurkezpena	Komunikazio trebetasunak erakustea. Berba txandak errespetatzea.
Taldean lan egitea parte hartzea, ardura, autoestimua, sormena,	Taldearen auto-ebaluazioa	Hasieratik lan talde moduan antolatu: lan taldearen helburuak adostea,

<p>adiskidantza, askatasuna, erlaxazioa, dibertsioa, bizipoza eta kontzentrazioa sustatuz unean uneko jardunetan.</p>		<p>funtzioak, denbora, guneak, gatazkei aurre egiteko erak, besteak beste.</p> <p>Adostutako lan-plan bat egitea eta berorri jarraitu edo plana aldatu (egokiro justifikatuz) beharrezkoa izanez gero.</p> <p>Modulu gidari jarraitu.</p> <p>Epeak bete.</p>
---	--	--

3.2. Moduluaren ikaste emaitzak.

<p>Haur Hezkuntzako irakaslegaiak identifikatzen du egoera jakin baten komunikazio-arazoa eta protagonista bakoitzak duen rola.</p> <p>Badaki zer den IKTak egoki erabiltzea eskola inguruko eragileen arteko komunikazioan, bereziki Haur Hezkuntzan.</p> <p>Ikastetxearen egiturak (formala eta ez formala) hezkuntza eragileen arteko komunikazioan duen garrantzia aztertzen eta baloratzen du.</p>
<p>Badaki familiekiko komunikazioa egokiro egiteko beharrezko baldintzak zein diren, hezkuntza-dimentsioan.</p> <p>Protagonista desberdinen egoerak ulertzeko gai da eta enpatia du pertsona horiekin eta aintzat hartzen ditu ikuspuntu ezberdinak, baita pertsona horien emozioak eta sentimenduak ere.</p> <p>Komunikazio-faktore horiek eskolako giroan eta haurren garapen psikosozialean duten eragina kontuan hartzen du.</p>
<p>Familiaren eta eskolaren arteko elkar-lana sustatu</p> <p>IKTak erabiltzen ditu informazio-iturri ezberdinak arakatzeko, informazioa kudeatzeko eta eskolako komunikazioa sustatzeko.</p> <p>Familiekin komunikatzeko behar diren testu idatziak eta ahozko adierazpenak ekoizten ditu, dagokien formatua errespetatuz, hartzaileari eta egoerari egokituta, eta komunikazio-helburua betetzeko gai da behar den argitasunaz, zuzentasunaz eta egokitasunaz.</p>

4. Dalaren garapena

4.1. Arazoaren deskribapena.

Planteatzen den arazo-egoera honako hau da:

Ikasleen garapenerako onuragarria izango den proiektu berritzailea martxan jarri nahi dute eskolan, zuek (lerro ezberdinetako tutoreak) gurasoei komunikatzeko bilera eta aurkezpena prestatu behar duzue, euren onespena eta laguntza bermatzeko.

Hasierako fasean taldeak osatu beharko dira, osaketaren aktan jasoko dira horren inguruko erabakiak.

Horren ondoren, egoera aztertu beharko da eta arazoa definituko da. Momentu honetan, iksaleek praktikaldian eskoletan ezagutu duten proiektu berritzailearen baten esperientzia azalduko dute taldean. Behin proiektu bat aukeratu, eskolara joan beharko dute informazio osagarria jasotzeko.

Hurrengo fasean, erantzunak edo irtenbieak bilatuko dira eta proposamen bat eraiki egingo da

Modulu-lan hau diziplina arteko lana denez gero, nabarmendu nahi dugu aukeratu den arazo-egoeraren zergatien nolakotasuna diziplina artekoa izan behar dela edo, beste era batera esanda, egoera aukeratzeko arrazoietan moduluan dauden lau irakasgaien gaietako arazo edo gaiak aipatu behar direla.

4.2. Faseak eta ematekoak.

FASEA	Galdera eragileak	Zereginak	Ematekoak	%	Noiz- nola aukeztu
0. Taldea eratzea	Nola eratuko dugu taldea?	Taldekideei rolak eta zereginak esleitzea.	1. Taldearen eraketaren eta bileren akta.	5	1. akta 1. astean. Gainerakoak bukaeran.
1. Egoera aztertu eta agertokia definitu.	Ikastetxearen ezaugarriak: hizkuntz eredua, ikasle irakasle kopurua Haur Hezkuntza etapako ezaugarriak Gauzatu nahi den proiektuaren ezaugarriak	Definitutako arazoaren azterketa egitea, parte hartzen duten eragile guztiak kontuan hartuta (familiak, ikasleak, irakasleak eta eskola). Eskoletara joan daitezke informazioa biltzera.	2. Hasierako txostena: (2 orri) a. Egoera deskribatzea: elkar eragiten duten elementuak, mapa mental bat egin. b. Kronograma (lana planifikatzea).		Lehenengo asteko amaierako tutoretza saioan. Talde bat baino gehiago elkartzea interesgarria izan daiteke.
2. Nola bideratuko dugu arazoa?	Zer egingo dugu? Zer jakin nahi/behar dugu? Nola lortuko dugu? Zer eraiki nahi/behar dugu? Zer jakin behar dugu eraikitze/egiteko? Noren artean bideratu behar da informazioa eta/edo komunikazioa? Zer eduki eman nahi diogu? Zein balio sustatu nahi ditugu? Zeintzuk dira tresnarik egokienak?	Helburuak argitzea. Informazioa bilatzea, aukeratzea eta aztertzea, hainbat iturri erabilita. Lanerako gidoia prestatzea eta egin beharreko ekintzak zehaztea. Produktua egitea.	3. Txostena osatua: Zer esan behar dugu? (testua) (komunikazio gaitasuna) Nola esango dugu? (PPT+ beste) (IKT) Deialdia (Antolakuntza) Erabilitako materialen ekarpena labur deskribatzea (bibliografia/webgrafia, elkarrizketak).	30	Lauhilabetearen 8.astea
3. Ahozko aurkezpena	Nola laguntzen du eskolako komunikazioa eta elkarbizitza errazteko? Zein baliabide (a) erabiliko dugu aurkezpena egiteko?	Emaitzak eta ekintzak aurkeztea.	4. Aurkezpena (notaren % 10 ikasle bakoitzari emango zaio eta % 30 talde osoari).	40	Lauhilabetearen 8.astea

4. Gogoeta eta ebaluazioa.	Zer ikasi dugu? Nolako izan da taldearen prozesua?	Egindakoari eta ikasitakoari buruzko gogoeta eta ebaluazioa.	5. Autoebaluazioa.	25	
----------------------------	---	--	--------------------	----	--

4.3. Kronograma.

1	Iraila	MODULUA
2		MODULUA
3		PRACTICUM I Aurkezpena eta hasierako formakuntza
4	Urria	PRACTICUM I
5		PRACTICUM I
6		PRACTICUM I
7		PRACTICUM
8		MODULUKO AURKEZPENAK eta KLASEAK
9	Azaroa	Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
10		Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
11		Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
12		Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
13	Abendua	Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
14		Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak
15		Moduluko iksagaiak. Ikasgela-taldeak

4.4. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak.

Ikasleek DALa egiten duten bitartean aurrez aurreko saio batzuk egin beharko dituzte, bai ikaskide guztiekin bai taldekideekin. Saio horiek honela banatuko dira:

- Diziplinarteko lanaren aurkezpena: talde handian, kurtsoko lehenengo astean.

- **Ikasgaietan DALari dagokion edukiak landuko dira zenbait ordu magistraletan.**
- **Tutoretza saioak: tutoreak bere taldearekin egingo ditu. Talde bakoitzak lan egutegi bat ezarriko du, tutoretza-saioak noiz egingo diren eta lanak noiz entregatuko diren zehaztuz. Gutxienez, hiru tutoretza egingo ditu:**
 - 1. Hasierako saioa: bi orduko saioa izango da gutxi gora behera, DALaren aurkezpenaren ostean. Helburua: taldea osatzea, egoera aukeratzea eta bertan parte-hartzen duten elementuak definitzea eta kronograma egitea (1. astean).**
 - 2. Segimendu-saioa: zalantzak argitu eta arazoaren ebazpenaren gorabeherak aztertuko dira. Tutorearekin adostuko da (2. astean).**
 - 3 Ebaluazio-saioa: (8. astean)**
- **Proiektuak aurkezteko saioa: lanaren aurkezpena eta defentsa ikaskideen eta tutorearen aurrean (8. astean).**

4.5. Ematekoen inguruko oinarrizko alderdiak.

Ematekoak egiteko orientabideak dokumentu honen 1. eranskinean daude. Horretaz gain, ezinbestekoak diren aspektu batzuk nabarmendu behar dira:

Hizkuntza gaitasuna: Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean -beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik-, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- **Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna**
- **Diskurtsoaren ulergarritasuna**
- **Hiztegia eta Ortografia**
- **Ergatiboa eta komunztadura**

Plagioa: Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak APA zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

5. DALaren ebaluazioa.

Haur Hezkuntzako Titulazio Batzordeak adostutakoari jarraituz:

DALa diziplina arteko lana da eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Horren ebaluazioa jarraitua izango da eta honetan oinarrituko da:

- **Lan idatziak, adostutako datetan entregatuko direnak.**
- **Egindako lanaren ahozko aurkezpena.**
- **Tutoretza-saioak dagokion tutorearekin.**

Irizpide horiei jarraiturik, lanaren ebaluazioa egiteko kontuan hartuko dira 4.2. azpiatalean zehazten diren ematekoak eta azpiatal honetan behean zehaztutako irizpideak. Taldeek tutoreari aurkeztuko dizkiote ematekoak, adierazitako epean eta zehaztutako euskarri eta formatuan.

Aurkezpen formala eta ahozko defentsa ikaskideen aurrean egingo da. Formatua aldezturik tutorearekin adostuko da; 15 eta 30 minutu artean iraungo du. Alabaina, idatzizko txosten bat ere aurkeztu beharko da, 5 orrialdekoa gehi eranskinak.

Testu idatziak direnean, ahaldela Times New Roma, Arial edo Calibri, 12 tamaianako formatua erabiliko da.

Oro har, ebaluazioa egiteko honako hauek hartuko dira kontuan: gidan adierazitako atal guztiak, gaiari dagokion terminologia egoki erabiltzea, zuzentasunez eta egokitasunez idaztea eta mintzatzea.

Horrez gain baloratuko da:

- **Informazio iturri desberdinak erabiltzea (erreferentzia bibliografikoak).**
- **Norbanakoak talde-lanaren dinamikara egokitzea (txostenaren antolamendu koherentean islatuko da hori) eta ahozko aurkezpenak kohesioa izatea.**
- **Ideiak ordenatuta, koherentziaz eta logikaz aurkeztea.**
- **Zentzu kritikoa eta sormena adieraztea.**

DALari emandako kalifikazioa 3. moduluko irakasgai guztien azken kalifikazioaren % 16 izango da.

Kalifikazioa honela osatuko da: taldearen autoebaluazioari % 25 dagokio, eta tutoreari % 75 (% 65 talde osoari eta % 10 ikasle bakoitzari).

DALa gainditzeko, gutxienez, 5 atara behar da 1etik 10era bitarteko eskalan. Lana gainditzen ez duten ikasleek ohiz kanpoko deialdian egin beharko dute.

Txostenari dagokionez, hizkuntzako adierazpide zuzena hobetsiko da eta akatsak oso nabariak direnean, bi eguneko epeaz lanak zuzendu eta berridatzi beharko dira, kasuan kasuko erabakiak hartuko direlarik.

5.1. Lan modularren ematekoak eta ebaluatzeko irizpideak.

DALaren ebaluazioan hauek izango dira eskatuko diren ematekoak eta baloratuko diren portzentaiak:

Fasea	Ematekoa	Ebaluazio %
Taldea eratzea	1. akta	% 5
Agertokia definitu eta egoera aztertu	Buru mapa edo eskema (orrialde 1)	% 5
Nola bideratuko dugu arazoa?	Txostena	% 30
Aurkezpena	Aurkezpena	% 40
Gogoeta eta Ebaluazioa	Autoebaluazioa	% 2

6. COVID19

Pandemiaren eraginez egon daitezken aldaketak ezin dira guztiz aurreikusi, hortaz, momentuko beharrei egokitzen joan beharko gara. Edozein kasutan, tutoretzak eta aurkezpenak on-line egiteko aurreikuspena egin da. Gainontzeko guztia espero da modu berean mantentzea.

Erreferentzia bibliografikoak

Branda, L. A. (2008). El aprendizaje basado en problemas: el resplandor tan brillante de otros tiempos. In *El aprendizaje basado en problemas: Una nueva perspectiva de la enseñanza en la universidad* (pp. 17-46). Barcelona: Gedisa.

Hernández, F. (1998) Repensar la función de la Escuela desde los proyectos de trabajo. *Patio, Revista Pedagógica*, 6, 26-31.

Hernández, F. (2000) Los proyectos de trabajo: la necesidad de nuevas competencias para nuevas formas de racionalidad. *Educar*, 26, 39-51.

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa. Hezkuntza Berrikuntzarako Serbitzua. (2008) Proiektuei begira lantzen den ikaskuntza.
https://issuu.com/karmele_perez/docs/proiektuei_begira_lantzen_den_ikaskuntza-tik-eskuratua

Morales, P. (2007). Nuevos roles de profesores y alumnos, nuevas formas de enseñar y de aprender. In Prieto, L. (koord.). *La enseñanza universitaria centrada en el aprendizaje*. Barcelona: Octaedro.

Zabalza, A. (2012) *Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza: Munduaren Desorekak; Migrazio Mugimenduak*. Master Amaireko Lana, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Eranskinak

1. Eranskina: Ematekoak egiteko gida laburra.

1. ematekoa. Aktak: talde eraketarena eta bileren aktak.
Lan taldearen saioen erregistroa egitea da helburua.
Noiz eta nola: Lehenengo akta 1. astean entregatuko da, eta gainerakoak azken txostenarekin batera. Erabili beharreko formatua aldeztu aurretik adostuko da tutorearekin: paperean edo formatu elektronikoan.
Ebaluazioa: Azken notaren % 5 balioko du, eta honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: Akta ereduak: puntu guztiak barne hartzen ditu. (2. Eranskina) Gutxieneko akta kopurua. Aktaren edukia: beharrezkoak diren atal guztiak aipatu dira, edukia eta forma argiak dira. Ba al dago lanaren inguruko gogoetarik?
2. ematekoa. Hasierako eskema.
Bi orritan, Egoera deskribatzea: elkar eragiten duten elementuak erlazionatu. Buru mapa egin Kronograma (lana planifikatzea).
Noiz eta nola: Lehenengo asteko amaierako tutoretza saioan.
Ebaluazioa: Kontuan hartzeko: Orri kopurua (2). Adierazpenak argia izan beharko du (mapa mentala, taula); elkar eragiten duten elementuen arteko harreman egokia ezarri beharko da. Lanaren plangintza: etapa eta zeregin guztiak jaso behar ditu. Hasierako plangintza orokorra izango da. Formarekin lotutako zehaztasunak.
3. ematekoa. Txostena

Gehienez 10 orri izango ditu. Atal hauek bereiztuko dira:

Azala

Aurkibidea

Sarrera

1 Egoeraren azterketa. Kontestualizazioa

2 Helburua formulatu

3 Informazio bilaketa: Bilaketa bibliografikoaren emaitzak eta ikasgaien ekarpenak labur deskribatzea (bibliografia/webgrafia,, elkarrizketak). (komunikazio) (IKT) (Antolakuntza)

4 Arazoa konpontzeko esku-hartzea

Zer esan behar dugu? (testua)

Nola esango dugu? (PPT+ beste)

Deialdia

5 Ondorioak- hausnarketa

Erreferentzia bibliografikoak

Eranskinak

Kontuan hartu 4.5 ataleko oharra.

Noiz eta nola:

Emateko hau DALANaren azken astean (lauhilaabetearen 8.ean) aurkeztuko zaio tutoreari, paperean, eGela bidez edo adostutako bestelako eraren batean.

Ebaluazioa:

Azken notaren % 30 balioko du, eta honako irizpide hauek kontuan hartuko dira:

Iturri aniztasuna.

Erabilitako materialen kalitatea.

Eskemaren egokitasuna arazoarekiko

Diseinuaren egoerari eta ezarritako helburuei egokitua dago.

4. ematekoa. Aurkezpena.

Familiei egingo zaien bilera eta aurkezpena

Noiz eta nola:

DALaren azken astean (lauhilabeteko 8.). Aurkezpenaren formatua, ppt edo parekide baliabidean izango da, honetaz gain beste errekurtso ere erabili daitezke, bideoa, ..), irakaslearekin aldeztu aurretik adostua, eta betiere oinarritzko gidoi idatzia egongo da.

Ebaluazioa:

Azken kalifikazioaren %40 izango da.

Honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan: moduluko eremu guztiak barne hartzea eta proposamena familiekiko komunikazioa sustatzeko egokia izatea.

Aurkezpenari dagokionez, kontuan hartuko da: edukien kalitatea, erabilitako ikus-entzunezko euskarria, sormena eta irakasgaiak barne hartzea.

5. ematekoa. Autoebaluazioa

Helburua da taldekideek amaierako lanaren eta taldearen funtzionamenduaren eta dinamikaren ebaluazioa egitea.

Noiz eta nola:

DALaren bukaeran.

Tutorearekin egingo den azkeneko saioan.

Ebaluazioa:

Auto-ebaluazioak azken kalifikazioaren % 25 balioko du.

Ikusi 2. eranskina.

2. Eranskina: Aktak jasotzeko txantiloia.

Lan saioaren akta			
Taldearen izena:			
Eguna:	Lekua:	Hasiera ordua:	Amaiera ordua:
Etorri direnak:			
Koordinatzailea:		Aktagilea:	
Aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak:			
Hurrengo egunerako eginkizunak eta oharrak:			

3. Eranskina: Taldearen autoebaluazioa egiteko txantiloia.

TALDE-LANAREN HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA

Taldearen izena:

Kalifikazioa: (Zenbakitan)

Hausnartu beharreko gaiak:
Banakako hausnarketa: Nola sentitu naizen taldean Ni lan-saioetan egon naiz eta eskatutako lana bete dut Kolaborazio maila eta taldeko gainerako kideei emandako laguntza nolakoa izan den zehaztu Zer ikasi dut?
Taldeari buruzko hausnarketa: Kontuan izan dira kide guztien iritzi eta ikuspuntuak? Lortu al da kide guztien konpromisoa eta jarduera orekatuak izatea? Taldeen definitutako rolak errespetatu al dira? Bileretan adostutako lan-plana planifikatu al da eta proposatutako helburuak bete dira? Denek bete dute emandako lana aurreikusitako epean?
Egitekoari buruzko hausnarketa: Burututako proiektua, aplikazio praktikoa izateaz gain, etorkizunean erabil daiteke. ABP metodologia ikasi al dugu? Irakasgai guztiak proiektuan islatu dira? Gure aurkezpena honakoa izan da:
Etorkizunera begira: Aurkeztutako proiektua eta dinamika lanean hobetu beharrekoak.